

FAMILIA HAUNDITZEN DOA

Iñaki Aldai
ialday@irakasle.net

Adina 5. 6. maila.

PERTSONAIAK

- . Jose Manuel (aita) . Laguna 1
- . Kattalin (ama) . Laguna 2
- . Medikua. . Laguna 3

(Ama, haurdun dago eta alde batetik bestera oinez dabil. Duen tripa handiarengatik, ibili ahal izateko, eskua gerrira eraman behar izaten du. Senarra jarlekuan eserita egunkaria irakurtzen dago)

Jose Manuel: Zer moduz zaude Kattalin?

Kattalin: Ai gizona, tripa handi hau eutsi ezinik. Pisu honekin gerriko mina ere egin zait.

Jose Manuel: Lasai emakumea, lasai.

Kattalin: Bai, errez esaten duzu hori. Haurra edozein momentutan jaio daiteke.

Jose Manuel: Gauzak lasaitasunez hartu behar dira.

Kattalin: Nire egoeran egongo bazina...

Jose Manuel: Zure egoeran eta okerragoetan ere lasai egoten naiz.

Kattalin: Ai, Ai, Ai..

Jose Manuel: *(Salto batez arin altxatzen da jarlekutik urduri)*
Zer duzu emakumea? Ongi Zaude? Badator umea?

Kattalin: *(Eskua tripara eramanez)* Ez, ez. Haurraren ostikada bat izan da.

Jose Manuel: *(Lasaituz)* Jakina, hau futbolista izango da. *(berriro esertzen da).*

Kattalin: Ai, Ai, Ai.

Jose Manuel: *(Berriro ere bat-batean altxatuz)* Badator???

Kattalin: Ez, ez, beste ostikada bat.

Jose Manuel: *(lasaituz)* Martxa honetan Ronaldo baino hobea atera behar zaigu.

Kattalin: Ai.Ai, Ai.

Jose Manuel: Zer, Ronaldoren beste gol bat?

Kattalin: Ez gizona, ez. Oraingoan bai.

Jose Manuel: Oraingoan bai, zer?

Kattalin: Badatorrela!!! Umea jaio behar dela!!!

Jose Manuel: Badatorrela???, *(Bat-batean altxatu eta arin ibiltzen hasten da)* Ai emakumea, ai emakumea...

Kattalin: Ai, Ai, Ai. Kontrakzioekin hasi naizela uste dut. *(Senarraren jarlekuan esertzen da)*

Jose Manuel: Ai ene, Ai ene. Eta zer egingo dugu orain?

Kattalin: Zer egingo dugu ba! Medikuari deitu!

Jose Manuel: Egia da, Egia da. Medikuari. Non dago medikuaren telefono zenbakia?

Kattalin.: *(Pazientzi handiz)* Telefono agendan. Bertan tarjetatxoak daude. Bata medikuarena da.

(Tarjetatxoak hartu eta begira hasten da, baina urduritasunaren urduritasunaz, guztiak lurrera erortzen zaizkio.

Kattalin: Ai gizona, ekar itzazu hona. *(bila hasten da)*. Hemen dago. Tori, deitu ezazu.

Jose Manuel: *(oso urduri)* Ea telefonoa non dagoen... *(alde batetik bestera, arin, telefonoa aurkitzen saiatzen da)* Ai ene Kattalin, telefonoa lapurtu digutela uste dut.

Kattalin: Mahai gainean dago. Betiko tokian.

Jose Manuel: Noski, noski, mahai gainean. *(zenbakiak markatzen hasten da)*

Kattalin : Jose Manuel, belarri ondoan duzuna ez da telefonoa.

Jose Manuel: shhhh! Zaude isilik, ez dut ezer entzuten eta... Bai arraroa, ez da inolako soinurik entzuten. Justu presa handia dudanean...

Kattalin: Jose Manuel, telebistako "mando a distancia"rekin deitzen ari zarela.

Jose Manuel: Nola? "Mando a distancia"? Ah bai... je, je, je, noski. Bromatxo bat izan da.

Kattalin: Jose Manuel, ez nagoela brometarako.

Jose Manuel: Noski, noski. Oraintxe bertan deituko dut (*telefonoa hartu eta arin batean zenbakiak markatzen ditu*). Medikua jauna?... Nola? Suhiltzaileak?. Ez, ez. Nik medikuarekin hitz egin nahi dut... Ez, ez hemen ez dago surik... Hor ba ahal dago medikurik?... erratu egin naizela? Ah barkatu, barkatu.

Kattalin: Tira Jose Manuel, ekarri hona telefonoa... Medikua Jauna? Kattalin naiz. Haurra momentu batetik bestera jaio behar dela uste dut. Etorri zaitezke arin? Eskerrik asko... Berehala datorrela dio.

Jose Manuel: Ene, ene, ene. Kattalin, zuk itxaron piska bat eh. Medikua etorri arte itxaron.

Kattalin: Ai Jose Manuel, haurra jaio behar denean jaioko da, ez nik nahi dudanean.

Jose Manuel: Tira, Tira. Zer egin dezakegu bitartean? Badakit! Arnasketa ariketak egingo ditugu.

Kattalin: Seguru ahal zaude?

Jose Manuel: Ez naiz egongo ba! Ni arnasketan oso jakintsua naiz. Ea har ezazu arnasa nirekin batera. (*arnasa, arin arin hartu eta botatzen hasten da*).

Kattalin: Nora zoaz horren arin gizona? Astiroago.

Jose Manuel: Arrazoia duzu. Astiroago. (*oraingoan arnasa astiroegi hartzen du, eta itobeharrean aurkitzen da*).

Kattalin: Hartu arnasa, ito egin behar zarela. Tira utz ditzagun kontu hauek.

(*Tinbrea entzuten da*).

Medikua: Heldu naiz azkenean. Ea zer dioen gure pazienteak.

Jose Manuel: Bai mediku jauna. Begira, bihotza arin arin taupadaka daukat, eta arnasarekin ere itobeharrean aurkitzen naiz...

Medikua: Tira, tira. Eseri zaitetz eta egon trankil dena ongi joango da eta.

Kattalin: Ai, ai, badatorrela.

Medikua: Goazen logelara, eta ohean etzan zaitetz.

(*Eszenatokitik irten egiten dira. Senarra alde batetik bestera pasioan gelditzen da tinbrea entzuten den arte*

Jose Manuel: Nor izango ote da orain?

Laguan 1: Kaixo Jose Manuel. Bisitatxo bat egitera etorri gara.

Jose Manuel: Ez da momenturik onena bisita egiteko.

Laguna 2: Nola ez da izango ba. Zer moduz dago Kattalin?

Jose Manuel: Justu horregatik. Logelan medikuarekin dago.
Haurra jaiotzear dago.

Laguna 3: Orain???

Jose Manuel: Bai orain. Bisitatxoa hurrengoan eh.

Laguna 1 : Orduan momenturik egokienean gatoz. Aita izateko
aholkuak eman behar dizkizugu.

Jose Manuel: Aizue, ni aita perfektua naiz. Hala, bihar arte.

Laguna 2 : Bai zera. (*poltsa batetik panpin bat ateratzen du.*)
Ea, pentsa dezagun, panpin honek kaka edo pixa
egiteko gogo duela. Zer egingo zenuke?

Jose Manuel: Zer egingo dut ba? Komunera eraman.

Laguna 3: Astakiloa! Pañala ipini behar diozu! Ea nola jartzen
dizun. (*panpina eta pañala ematen dio*).

Jose Manuel: Noski, noski, pañala. (*Pañala ipintzen dio baina ez
ditu goiko tira biak lotzen*)
Ikusten? (*Baina panpina altxatzen duenean pañala
erori egiten zaio.*)

Laguna 1: Hemen aita perfektua.

Jose Manuel: Zera... errakuntza txiki bat izan da.

(Berriro ere pañala jartzen hasi baina nahastu egiten da. Une baten ondoren, pañala hanka baten inguruan lotzen dio eta panpina ipurdi bistan gelditzen da.)

Laguna 2: Hau, pentsatzen nuen baino grabeagoa da.

Laguna 3: Utz ditzagun pañal kontuak. Pentsa dezagun zure haurrak gosea duela. Zer egingo zenuke ?

Jose Manuel: Hau erreza da. Txorizo bokadillo bat prestatuko nioke.

Laguna 1: Kattalin, jainkoak lagundu zaitzala.

Laguna 2: Nola emango diozu txorizo bokadilloa hortzik ez badu oraindik? Biberioia eman behar diozu!
(poltsatik biberioia atera eta eman egiten dio).

Jose Manuel: Beno, hau ematea behintzat, erreza da.
(panpina altzotan hartu eta biberioia ematera doanean...)

Laguna 3: Geldi!

Jose Manuel: Zer gertatzen da orain?

Laguna 1: Nola dakizu biberioia ez dagoela beroegia?

Jose Manuel: Arrazoa duzu. Beroegia dagoen aztertuko dut.
(Jose Manuel biberioia probatzen hasten da).

Laguna 2: Ez, horrela ez!

Laguna 3: Biberioia astindu eta tanta batzuk isuri beso gainera. Begira honela...

(demostrazio bat egiten dio).

Jose Manuel: Nahikoa da! Lehen lasai lasai nengoen, eta orain urduri jartzen ari zarete. Alda hemendik!

Laguna 1: Jesus, ez haserretu.

Laguna 2: Bagoaz, bagoaz. Baina praktikatu....

(joan egiten dira. Bat-batean haur baten negarrak entzuten dira eta medikua haur batekin eszenatokira sartu eta Jose Manueli esku artean haurra jartzen dio).

Medikua: Zorionak Jose Manuel. Alaba ederra izan duzu. Tori

Jose Manuel: Ene, ene, ene...

Medikua: Logelara noa berriro ere.

Jose Manuel: Hau gauza polita. *(Bat-batean berriro ere haurraren negarra entzuten da)*. Nire Txikitxo hasarre dago? Txupetea emango dizut. *(Haurraren negarra entzuten da berriro ere)*. Akaso gosea duzu? *(Pentsakor gelditzen da eta belarria haurraren burura hurbiltzen du)*. Baina haur hau, ez dago negarrez. Noren negarrak izango ote dira?

(Berriro ere medikua beste haur batekin sartzen da eszenatokira)

Medikua: Zorionak Manuel Seme ederra ere izan duzu.

Jose Manuel: Seme ederra?

Medikua: Bai motel. Bikiak izan dituzue.

Jose Manuel: Bikiak??? Ai ene, ai ene, ai ene.

(Kattalin eszenatokira sartzen da)

Kattalin: Lasai gizona, lasai. Gauzak lasaitasunez hartu behar dira.